

ERAKUNDEAREN DATUAK (eskutzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezten.

1. Erakundearen izena:	BIDELAN GIPUZKOAKO AUTOBIDEAK, S.A.
2. Sektorea:	Autobidearen kudeaketa
3. Langile kopurua:	258
4. Webgunea:	www.bidelan.eus
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	AP-8 autobidearen Gipuzkoako zatiko kontserbazioaz eta mantentze-lanez arduratzen da Bidelan eta horretarako lan hauek egiten ditu: <ul style="list-style-type: none">• Autobidea erabiltzeagatiko kanona kobratu• Mantentze eta kontserbazio lanak egin• Errepideak garbitu• Bideak kudeatu• Erabiltzaileei arreta eskaini

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak:	Marisol Alza Larruskain
Helbide elektronikoa:	malza@bidelan.eus
Telefonoa:	943 311 910

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	INTRANETETIK BIDENETERA EUSKARAZ
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Gure erakundearentzat hain garrantzitsua den komunikazioa eta parte hartzea bermatzeko eta sustatzeko, intranet-a sortu genuen 2008an.</p> <p>Ez ohiko erakundea gara, dispertsio geografiko handikoa, Irunen hasi eta Eskoriatzan bukatzen dena, lan-txandaka lan egiten duena,....Ondorioz behar genuen elkargune birtual bat.</p> <p>Intraneta sortu bezain pronto, erakundeko “ahotsa” eta helburuak isladatzeko, politikak eta estrategia zabaltzeko, funtsezko tresna dela ohartu ginen.</p> <p>Pandemiak sortu duen egoerari aurre egiteko ere oso elementu baliagarria izan da, izan ere ekimen berriak, formakuntza, partehartzea... bideratzeko ezinbesteko tresna bihurtu da.</p> <p>Gauzak horrela, gerota gehiago eskatzen zaio gure intranetari eta ondorioz hasiak gara behar berriei erantzungo dion bertsio berri bat egituratzen.</p> <p>BIDENET izena hartuko du belaunaldi berriko gure intranetak eta sare berri honekin, besteak beste, euskararen kudeaketa indartzeko helburuari eman diogu lehentasuna.</p> <p>Honela, lehen urratsetik azkenera Bidelanen ditugun euskara estrategiak barneratu eta abian jarri ditugu:</p> <ul style="list-style-type: none">• Euskararen presentzia gaztelaniarekiko handituz.• Euskara batzordeari atal propioa emanaz eta bertan erreferentziazko dokumentazio guztia partekatuz: erakundearen konpromisoak, euskara plana, hizkuntza irizpideak, euskararen erabilpenerako oharrak, hiztegi partekatua, erakundearen barne hiztegia (guztion artean adostutakoa), batzordetik bultzatutako ikuskaritza prozesuen ondorioak, datu estatistikoak, etb.• Partehartzeak ere leku propioa dauka, horrela martxan jartzen diren ekimen guztiak izango ditugu denok eskura: Euskaraldia, Egunean behin jokoa, euskararen eguneroko ekintzak, barne taldeak (erraztatzaileak) burututako lanak,...• Eskuragarri jartzen dira ere beste erakundetako praktika onak, hara nola, 5 minutuko ikastaroa (Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak sortutakoa), albiste interesgarriak, ... azken batean gure lanarekin zerikusi zuzena ez izan arren euskaraz lan egitea errazten diguten tresnak. <p>Azkenik eta nobedade gisa atal interaktiboa ere lantzen ari gara besteak beste, inkestak, eta datuen jasotzea bideratzeko.</p>

Momentu konkretu honetan lantze prozesuan gaude eta nahiz eta eskema orokorra finkatuta dagoen, gure Bidenet berriko “Bizi euskaraz” atala laborategian dago. Edozein kasutan, nondik-norakoa ikusi daiteke hurrengo orrietan.

Orain arteko intranetean “Bizi euskaraz”-ek atalak izan dituen bezala, Bideneten Bizi euskaraz-ek 4 atal izango ditu, biziak izango dira, eta beharrezkoa denean osatzen/errebisatzen/eguneratzen joango gara.

1. ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTAZIOA izango duen atala eta gure orain arteko intranetean daukaguna osatuko duena (erakundearen komunikazioaren inguruan egindako ikuskaritzaren berri emango dugu, adibidez).
2. IKASTEN izena eman diogu bigarrengoari. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak sortutako 5 minutuko ikastaroa izango dugu guztion eskura, beste erakunde batzuetako praktika onak konpartituko ditugu, Bidelanen hilabetero publikatzen ditugun pilula / albisteak. Guztiontzat baliagarri ikusten ditugun ekimenak konpartituko ditugu.
3. PARTE HARTU EUSKARAZ atalean Euskaraldia, Egunean behin jokoa, euskararen inguruko kanpainak, Bidelaneko errezatzaileen inguruko funtzioak, eta abarrekoak jorratuko ditugu.
4. GALDETEGIAK ETA PROPOSAMENAK da gure azken atala eta Bidelaneko langileen arteko harremana eta iritziak jasotzeko balio izango du. Bertatik, Euskara batzordean lan egiteko behar den informazioa jasotzeko erabiliko ditugun galdetegiak kudeatuko ditugu (bakoitzaren euskara maila, erabilera, eta abarrekoak adibidez). Erakundearen euskara bultzatzeko ideiak, euskaraz lan egiteko proposamenak,...

Euskara Batzordeak, oraingo honetan barne eta kanpo komunikazioaren erronka hartu du. Barne komunikazioari begira, intranet berrian gure eskura ditugun erramintak eta dinamika partekatuko ditugu eta partehartzea bultzatu. Honetako, bide batez, posta elektronikoko korreo berria sortu du.

Adierazleei dagokionez, orain arte Bikaineko EME-a izan da gure ardatza baino euskararen kudeaketaren inguruan, gure erakundearen argazkia eta neurtu beharrekoak aldatu egin direla baloratu dugu eta horrekin batera gure eskema ere bai.

Aurtengo gure erronka nagusia lau elementu hauetan kokatu dugu:

- Kudeaketa Planaren betetze maila
- Hizkuntza irizpideen betetze maila
- Barne dokumentazioaren plangintzaren elebitasunaren betetze maila
- Partehartze portzentaia

Kudeaketa Plana, Hizkuntza Irizpideak eta partehartzea Bidenet berrian semaforoarekin neurtuko ditugu: gorria, horia eta berdea, alegia.

Bidenet Proiektua

bilakaera



BIDELAN



Euskadi
2 0 1 1



Egungo Intraneta (I)



The screenshot shows the BIDELAN intranet interface. At the top, there are logos for BIDELAN, Euskadi 2011, EUSKARALDIA, and BERRION. A navigation bar includes links for '2021eko Irailaren 20a', 'Informazio Korporatiboa', 'Antolamendua eta giza baliabideak', 'Dokumentazioa', 'Lotura interesgarriak', and 'Bidelan webgunea'. On the right, there are buttons for 'Ongi etorri', 'Modulu administrazioa', 'Ataritik irten', and 'Castellano'.

The main content area is divided into several sections:

- Left sidebar:** A list of navigation items: 'Lan Salla', 'Lan erlazioak', 'Sustapena', 'Osasuna eta gizarte-segurantza', 'Bizi euskaraz' (highlighted with a red box), 'Berriak', 'TopGune', 'Egunean', 'Eguraldiaren iragarpena', and 'Maiz egiten diren galderak (F.A.Q.)'.
- Nire kontsulten egoera:** A table showing the status of consultations:

Aukeratutako marrazkia 6 zenbakiduna	[Erantzunda]
Aukeratutako marrazkia 18 zenbakiduna	[Erantzunda]
Aukeratutako marrazkia 12 zenbakiduna	[Erantzunda]
- Oharrak - Zirkularrak - Jakinarazpenak:** A list of notices:
 - 03/09/2021** - Gripearean aurkako txertoari buruzko...
 - 25/05/2021** - Istripu eta bizitza - aseguruia
 - 29/03/2021** - 2020ko Errenta Kanpaina
 - 13/01/2021** - MEDIKAMENTUEN ERABILERA ENPRESAN
- Zorionak:** OSCAR BARBEITO GUENECHEA de Planificación y control financiero.
- Albisteak:**
 - Zarautz barrera bidesaria berritzeko lanen lehenengo fasearen hasiera.**
 - 30/08/2021
 - Hurrengo irailaren 6an hasiko dira zarautz barrera bidesaria berritzeko lanak.

On the right side, there are three vertical icons: a clock for 'EGUNEAN', a square with arrows for 'TOP GUNE', and a virus for 'COVID-19 + INFO'.

Egungo Intraneta (II)






Ongi etorri

Moduluen administrazioa

Ataritik irten

Castellano

2021eko Irailaren 20a
Informazio Korporatiboa
Antolamendua eta giza baliabideak
Dokumentazioa
Lotura interesgarriak
Bidelan webgunea

>> Orri nagusira joan

- :: Lan Salla
- :: Lan erlazioak
- :: Sustapena
- :: Osasuna eta gizarte-segurantza
- :: Bizi euskaraz
- :: Erreferentzizko dokumentazioa
- :: Bost minutuko ikastaroa
- :: Parte hartu euskaraz
- :: Berriak
- :: TopGune
- :: Egunean
- :: Eguraldiaren iragarpena
- :: Maiz egiten diren galderak (F.A.Q.)

:: BIZI EUSKARAZ

:: Erreferentzizko dokumentazioa

:: EUSKARAREKIN KONPROMISOA

Euskararekin Konpromisoa

Bidelan Gipuzkoako Autobideak SA-ak, berea egiten du euskeraren presentzia, erabilpena eta kudeaketa bideratzeko konpromisoa. Gipuzkoar gizartearekiko daukagun arduraren parte izanik, administrazioaren menpe kudeatzen dugun zerbitzu publikotik abiatuta, euskerarekiko konpromisoa eskeintzen dugun zerbitzuarekin/tik banan ezina dela uste dugu, gure misioarekin bat eginez.

Guzti hau bideratzeko eta euskeraz lan egin izateko Euskera Plana eta Euskeraren Erabilpenerako irizpideak daukagu gida. Euskeraren kudeaketa gure kudeaketa sistemaren barruan txertatzen dugu prozesuen bitartez konpromiso hau errealitate bihurtzeko.

Hiru arlotan banatzen dugu konpromiso hau, helburu orokorretan laburtuz:

1. Bidelanek eskeintzen duen zerbitzua solaskideak mahi duen hizkuntzan jaso ahal dezan bermatzea, beti ere lehentasuna euskarari emanez.
2. Euskeraren erabilera bultzatzea lanean eta barne harremanetan, pertsonen parte-hartzea sustatuz.
3. Euskara planaren kudeaketa egokirako lidergoa indartzea eredu izanez eta beharrezko organoak sortzea euskarri gisa.

[Hizkuntza Irizpideak](#) 

[Euskararen erabilpenerako oharra](#) 

Euskararekin Konpromisoa

Diru-laguntzak

Bikain Ziurtagiria

Zirkulazio hiztegia

Egungo Intraneta (III)



>> Orri nagusira joan

- :: Lan Salla
- :: Lan erlazioak
- :: Sustapena
- :: Osasuna eta gizarte-segurantza
- :: Bizi euskaraz
- :: Erreferentzizko dokumentazioa
- :: Bost minutuko ikastaroa
- :: Parte hartu euskaraz
- :: Berriak
- :: TopGune
- :: Egunean
- :: Eguraldilaren iragarpena
- :: Maiz egiten diren galderak (F.A.Q.)

:: BIZI EUSKARAZ

:: Bost minutuko ikastaroa

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Bost minutuko ikastaroa sortu du | Ikastaroak euskararen erabilera sustatzeko planaren barruan.

Ikastaro hau egunerokoa da eta goizero jasotzen dugu. Oso lagungarria ikusten dugulako guztion esku jarri dugu Bizi euskaraz atalean.

Bertan ikusi ahal duzuen bezala, 3 zati dauzka:

1. Euskara hobetzen: egunero gramatika, grafia eta teoria pixkat erakusten digu.
2. Testu idatzi bat da bigarrena: Ipuina, artikulua, pasartea,...
3. Hirugarrena berriz biziagoa da: bideoa, musika, argazkia, zinta, abestia,...

Espero dugu guretzat bezala, baliagarria izatea zuek guztiontzat ere!

Egungo Intraneta (IV)

2021eko Irailaren 20a
Informazio Korporatiboa | Antolamendua eta giza baliabideak | Dokumentazioa | Lotura interesgarriak | Bidelan webgunea |
Ataritik irten
Castellano

>> Orri nagusira joan

- :: Lan Salla
- :: Lan erlazioak
- :: Sustapena
- :: Osasuna eta gizarte-segurantza
- :: Bizi euskaraz
- :: Erreferentzizko dokumentazioa
- :: Bost minutuko ikastaroa
- :: Parte hartu euskaraz
- :: Berriak
- :: TopGune
- :: Egunean
- :: Eguraldiaren iragarpena
- :: Maiz egiten diren galderak (F.A.Q.)

:: BIZI EUSKARAZ

:: Parte hartu euskaraz

:: EUSKARALDIA

EUSKARALDIA 2020: GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

Euskaraldia

Euskaraldiko Infografiak

Egunean Behin

Hizkuntza-ohiturak aldatzeko eta euskararen erabilera handitzeko helburuarekin sortutako Euskaraldiaren bigarren edizioa izango dugu martxan 2020ko udazkenean. 2018ko lehen edizioan bezalaxe, aurrean ere parte hartuko du Bidelanek.

Aurtengoan, aurreko edizioan bezala, nahi duen edonork modu indibidualean parte hartzeko aukera izateaz gain, **entitateei zuzendutako ariketa** izango da, eta, lantokietan, enpresetan, administrazio publikoan, kultur zein kirol taldeetan... Euskaraldiaren ariketa egiteko entitate bakoitzean dauden **ariguneak** identifikatzeko proposamena egin digute. Ariguneak dira enpresetan bertan **euskaraz lasai aritzeko dauden guneak, lantaldeak edo batzordeak**, bertako kide guztiek gutxienez euskara ulertu eta denek edo gehien-gehienek ariketa taldean egitea erabakia hartzen dutenak, ahobizi edo belarriprest rola hartuta.

Horregatik, Bidelanen ere, lantalde jakin batzuetan ariketa taldeka egitea proposatu nahi dizuegu. Bidelaneko ariguneetako lankideek **2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4a bitartean, 15 egunez**, Euskaraldiaren ariketan parte hartuko dute, ahobizi edo belarriprest moduan. Horrela, **lanean** ere hizkuntza-ohiturak **euskararen mesedetan** aldatzeko ariketa egingo dugu.


Hainbat arigune identifikatu ditugu, eta, une honetan, arigune gehiago izan daitezkeen bila gabilta. Horregatik, zuen ohiko lankideekin arigune moduan parte hartu nahi izanez gero, edo informazio gehiago nahi izanez gero, Euskara Batzordearekin harremanetan jar zaitezke.

Bidenet berria (I)



Kaixo,

Sare honen bitartez beharrezkoak dituzun kudeaketak egin ahalko dituzu, informazioa jaso, baimenak eskatu, nominak jaso, bai eta ekimenetan parte hartu eta enpresa informazioa kontsultatu.




Navigation bar: **E W N B** KONFIGURATU

- WORKFLOWAK**
Nire workflowak
- BARNE KOMUNIKAZIOA**
Azken berriak ikusi dituzu?
- BARNE KOMUNIKAZIOA**
Azken abisuen egunean zaude?
- ERAKUNDEA**
Zergatik ez dituzu begiratzen zure datuak?
AZKEN, JARDUN. 2021/5/31
- EGUTEGIA**
21
Iraila
- ERAKUNDEA**
Aspaldian ez duzu zure CVa eguneratu
AZKEN, JARDUN. 2021/5/31
- ERAKUNDEA**
Ezagutzen al duzu gure erakundearen egitura?

BIDELAN BIDENET

a⁺web

Bidenet berria (II)



- Menua
- Erakundea >
- Workflowak >
- Nominak eta 10Ta >
- Barne komunikazioa >
- Dokumentu kudeatzailea
- Bizi Euskaraz >**

Bidenet berria (III)



< Bizi Euskaraz

Hasiera

Erreferentzizko dokumentazioa >

Ikasten >

Parte hartu euskaraz >

Galdetegiak eta proposamenak >